



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2022KO MAIATZAREN 24KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, 2022KO MAIATZAREN 25AN DEITUTAKO GREBAN ARABAKO EGOITZA ETA ETXEBIZITZA KOMUNITARIO PRIBATUEN SEKTOREAN ERKIDEGOARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUSTEA BERMATZEN DUENA.**

ELA eta LAB sindikatuek grebara deitu du Arabako egoitza eta etxebizitza komunitario Pribatuen sektorean 2022ko maiatzaren 25rako. 25ko 00:00tan hasiko da eta 23:59tan amaituko da.

Deialdia egin duten sindikatuen esanetan, grebaren arrazoia honako hau da: *“Probintziako sektoreko hitzarmena negoziatzea”*.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babestekak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Jarduera-eremuari erreparatuz gero, Arabako egoitza eta etxebizitza komunitario guztiak deitu dituzte ELA eta LAB deitutako greban. Denbora-eremuari dagokionez, deialdiak egun bakarrean izango du eragina, maiatzaren 25an.

Horrenbestez, behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar baitituzte ziurtatuta beharrezkoak diren zerbitzuak ematen direla eta prebentzio-neurriak ezarrita, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Bestalde, osasunaren babesa herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubide gisa islatzen da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «Pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako», eta zentzu berean adierazten dira Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua, Europako Kontseiluarena (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (NBE 1966) 12. artikulua.

Aurreko guztia kontuan izanik « Arabako egoitza eta etxebizitza komunitario » sektoreko greba-deialdi berri horri dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola egoitza arretan, bat etorrira honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta

mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du, inondik inora, de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; horrela, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Adinekoen egoitza-zerbitzuetako eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak «ezinbestekoak» dira, aldez aurretik aipatu ditugun arauetara jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekotasuna duten pertsonak dira, zeinak osasun-gabezia larriak izaten baitituzte, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dute, arreta emateko bai haien autonomiari baita legeak onartu dien mendekotasun-mailari; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarritzotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba-eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 legearen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituen, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren, Adintsuentzako funtsezko gizarte-zerbitzuei buruzkoa, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

*Tutoretzapeko apartamentuak:* Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

*Etxebizitza komunitarioa:* Bizikidetzaren unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

*Egoitza:* 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetzaren zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diona. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaitzaren edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Zentro hauen tipologia, horiek arautzen dituen araudiaren arabera, honako hau da: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikokoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonen eguneroko askotan behar dute laguntza eguneroko oinarrizko jardueren batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jardueren batzuk egiteko, egunean bizpahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolahi ere, laguntza premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek

(I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

**4)** Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integralerako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

**5)** Sektore horretan pertsonen ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozaletan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, deialdi zehatz honetan, higiene pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendetasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuen» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

**6)** Zuzeneko arretako zerbitzuez gain, beste zerbitzu batzuk ere badaude, neurri txikiagoan bada ere, ematen zaizkienak eta aurrekoen zeharkako mende daudenak (garbiketa, garbitegia, sukaldea, etab.) edo egoitza-instalazioen eta -zerbitzuen koordinazioan, mantentze-lanetan eta segurtasunean laguntzen dutenak.

Hori dela eta, garbiketa-zerbitzua indartu egin behar da, osasun-agintarien neurriek ezartzen duten intentsitate eta aldizkakotasunarekin egin ahal izan dadin; hau da, arreta berezia jarri behar da garbiketari, zentro osoaren desinfekzioa barne hartuko baitu nahitaez, eta maiztasuna handitu behar da, txanda bakoitzeko garbiketa 1eraino gutxienez, eta garbiketa areagotu behar da erabilera komuneko eta ohiko igarotzako eremuetan, bai eta kontakturako esposizioenak dauden gainazalean ere, hala nola barandetan, botandeetan eta pasabideetan. Garbiketa-zerbitzuak IT1 jarraibide teknikoan jasotako neurriak bete beharko ditu: egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak.

Sukalde-zerbitzuari dagokionez, elikagaiak prestatzeko mantendu beharko da, baina elikagaiak ahalik eta modu erraz eta sinpleenean egingo dira, medikuaren berriazko agindu zehatzik ezean, eta erabili eta botatzeko erabiliko dira, zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien erabiltzea dakarten protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuek, zeharkako zerbitzuek, baina beharrezko higiena zaintzeko beharrezkoak direnek, intentsitate txikiagoarekin, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarrizko zereginak egin beharko dituzte.

Mantentze-lanetako eta atezaindegia hartzeko zerbitzuek, funtsezkoak izan gabe, greba honetan gutxienekotzat jotzen diren zerbitzuak eta instalazioak behar bezala funtziona dezaten laguntzen dute. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan eragina izan dezaketen ustekabeak babestu beharreko funtsezko zerbitzuen berme gisa artatu beharko dira.

**7)** Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginen dagokienez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higie pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

**8)** Grebaren eraginpeko zentrozen konfigurazio berezia ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsonen arriskurik sortu gabe emango direla.

**9)** Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna.

**10)** Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarritzko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarritzko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten, bai eta greba egintzat har dadin.

**11)** Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak (uztailaren 30eko

126/2019 Dekretuaren bidez indargabetu denak baina, hala ere, oraindik ere aplikagarria denak, azken horren lehen xedapen iragankorraren arabera) ezartzen ditu gizarte baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak, langileen lan-karga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihestu daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

**12)** Zuzeneko arretaren eta zeharkako arretaren funtsezko irizpide berberak aplikatu behar zaizkie mendetasuna (6. ) duten adinekoentzako eguneko zentroei ere; izan ere, oro har, egoitzek baino langile gutxiago dituzte, eta horien erregulazioa urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan dago. Dekretu horren baimen-irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinarekin lotuta (8. paragrafoa, zehazki, langileei buruzkoa da). Beraz, zuzeneko arretako zerbitzuak mantenduko dira zuzeneko arreta hori ematen duten gerokultoreen edo parekatuen %100arekin. Era berean, zeharkako arreta-zerbitzuak (garbiketa eta sukaldea) bizitegi-eremuan aplikatu diren irizpide berberekin mantenduko dira.

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, «greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada».

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenera egokitutako bestelako garraiobideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan). Horren harira, gobernuko agintaritzak honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea.

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bere irizpena eman du gai horri buruz, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdiaren kariaz ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko Aginduaz 2013ko irailaren 25ean

emandako epaiaren bitartez. Epai horretan, garraio-mota horri dagokion oinarrizko zerbitzuaren izaera aitortzen dio Auzitegiak, eguneko zentroek ematen duten oinarrizko zerbitzura iristea bermatzen duelako. Hala ere, Salaren ustez, xedapenak motibazioa falta du, «zerbitzuok emateko deia jaso duten langileen greba-eskubidearen mugaren proportzionaltasunari erreparatzen bazaio».

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealitate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri %100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaieke greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraio biderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

**13)** Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien guztirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte esandakoarekin bat eta guztia laburbiltze aldera, 2022eko maiatzaren 25rako, Arabako egoitza eta etxebizitza komunitario pribatuen sektorean, lanordu osoan, deitutako greba gauzatzeko eskubidea baliatzea zilegi bada ere, pertsona kopuru jakin batek lanean jardun behar du «arreta zuzeneko zerbitzuak» emateko eta oinarrizko zerbitzu horiek emateko ezinbesteko diren beste jarduera batzuk gauzatzeko. Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu Gobernuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Premisa horietatik abiatuta, 2022ko maiatzaren 25erako aurreikusitako greba-deialdi honen aurrean, ezartzen da Arabako egoitza pribatuetan eta etxebizitza komunitarioetan zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 50 mantenduko dela. Bazkariaren ohiko ordutegian eta goizeko 8: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara izan ezik, horietan ehuneko hori % 10 handituko baita, eta egoitza pribatuetan eta etxebizitza komunitarioetan soilik, baldin eta erabiltzaileen profilarren %



70etik gora II. edo III. graduako mendetasun aitortua badute, gerokultoreak edo parekatuak % 70 izango dira. Kuantifikazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2018ko martxoaren 8ko greba orokorra zela-eta 2018ko uztailaren 18an eman zuen Epaiaren arabera egiten da. Era berean, gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta garatu beharreko zereginak, soil-soilik, zuzeneko arretako langile gisa eraturakoak izango dira.

Zuzeneko arretaren funtsezko irizpide bera aplikatu behar zaie eguneko zentroei ere, egoitzek baino langile gutxiago baitituzte. Horregatik, zuzeneko arretako zerbitzuak mantenduko dira, gosaltzeko eta bazkaltzeko ohiko ordutegian izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 handituko baita.

Azken bi urteotan hainbat greba-deialdi deitu dira hirugarren adinekoen egoitzen eta etxebizitzaren sektorean, Bizkaian, Araban, Gipuzkoan baita Bizkaiko hirugarren adinekoen egoitza pribatuetan.

Arabako egoitzen eta etxebizitza komunitarioen sektorean, adibidez, 2020ko urriaren 6ko eta abenduaren 18ko aginduak eman dira, eta, berrikiago, 2021eko otsailaren 15ekoa, martxoaren 31koa, maiatzaren 10ekoa, maiatzaren 31koa, ekainaren 7koa eta uztailaren 7koa. 2020ko urriaren 6ko Aginduaren aurka, zeina 2020ko urriaren 7rako eta azaroaren 11 eta 25erako greba-deialdiari buruzkoa baita, ELA sindikatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen, pertsonaren oinarrizko eskubideen babes juridikzionaleko prozedura bereziaren (1013/2020 errekurtsua) izapideen bidez bideratua. Errekurtso hori ezetsi egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2021eko otsailaren 24an emandako 82/2021 epaiak eta errekurritutako agindua berretsi zuen.

Bestalde, Bizkaiko adinekoen egoitzen sektorean 2021eko abenduaren 10eko, 2022ko otsailaren 3ko eta 2022ko martxoaren 16ko aginduak eman dira, 2021eko abenduaren 14rako, 2022ko otsailaren 8rako, 2022ko martxoaren 17rako deitutako grebak direla-eta, hurrenez hurren. Era berean, 2022ko otsailaren 23ko Agindua eman da, Ermuko VITALITAS ABELETXE egoitzan 2022ko otsailaren 24rako, martxoaren 10erako eta martxoaren 24rako deitutako greba dela-eta; eta 2022ko martxoaren 4ko Agindua, 2022ko martxoaren 8, 9, 10 eta 22, 23, 24an Orozkoko Ibarra Erkidegoko Jesús María de las Madres Mercedarias zentroan, baita 2022ko martxoaren 18ko Agindua eta 2022ko maiatzaren 4ko Agindua, centro beran deitutako grebarako gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen.

Gainera, aipatu behar dira CONDE DE ARESTI egoitzan 2021eko apirilaren 8tik aurrera eta Mungiako SAN JOSE ETXE ALAI egoitzan 2021eko apirilaren 8, 9 eta 12rako deitutako grebak, biak ere hizpide dugun greba-deialdiak eragindako sektorekoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuak, zeinetan 2021eko apirilaren 7ko aginduak eman baitziren. San Jose Etxe Alai egoitzako grebako gutxieneko zerbitzuak ezartzen zituen Aginduaren aurka, ELA sindikatuak 342/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri

zuen, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2021eko urriaren 28an emandako 411/2021 Epaiak ezetsi egin zuen.

Bestalde, Gipuzkoako adinekoen zentro pribatuen eta Gipuzkoako adinekoen egoitzen sektorean, 2020ko urriaren 2ko, 2020ko abenduaren 4ko, 2021eko otsailaren 22ko, 2021eko irailaren 21eko, 2021eko urriaren 26ko, 2021eko abenduaren 16ko eta 2022ko otsailaren 11ko aginduak eman dira. Lehenengoa, 2020ko urriaren 6ko greba-deialdiari buruzkoa, 1005/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten ELA eta LAB sindikatuek. Errekurtsu hori ezetsi egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2021eko apirilaren 20an emandako 148/2021 epaiak, errekurritutako agindua berretsiz.

Era berean, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren aginduak eman dira, 2021eko urtarrilaren 22koak eta 2021eko otsailaren 26koak. Agindu horien bidez, bermatu egiten da EAEko hiru lurraldeetan 2021eko urtarrilaren 26rako eta martxoaren 4rako deitutako greba sektorialerako zaintza-arloan komunitateari ematen zaion funtsezko zerbitzua mantenduko dela, eta eremu horretan sartzen da greba honetara deitutako sektorea. Era berean, aztergai dugun grebaren aurretik, 2022ko otsailaren 11ko Agindua eman da, 2022ko otsailaren 16ko eta martxoaren 24ko deialdiei buruzkoa.

Inguruabar horiek guztiak eta, besteak beste, 1.288/2017 eta 873/2018 jurisdikzio-babeseko baliabideetan emandako epaiak baloratu dira aurreko deialdietan gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan. Hain zuzen ere, aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuz, honako hau dio berariaz: sektorearen berezitasunari dagokionez, zerbitzuen eta egoitzen hartzaileen berezitasunari dagokionez, gutxieneko zerbitzuak ezartzeko orduan jardutea justifikatzen dela, prebentziozko izaerarekin, Salaren aurrekari batzuetan Bizkaiko grebari dagokionez baloratu ziren egoerak ez sortzeko, (Babes Jurisdikzionaleko Errekurtsua 1288/2017).

Lehen adierazi dugun bezala, egoitza pribatuetan eta egoitza horien sektorean hainbat agindu eman dira gutxieneko zerbitzuei buruz. Agindu horiek ez dira premisa juridiko bat greba-deialdi honetan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko – Konstituzio-doktrinak debekatutako inferentzia –, baina egiazta daitezke agindu hori babestu nahi duten Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan – Grebarena barne – Deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesetarako eragin dituzten ondorio positiboak edo negatiboak. Horregatik, eta funtzio, lurralde eta aldi baterako antzekotasuna kontuan hartuta, baita ukitutako pertsonen kolektiboena ere (enpresak, greba egin duten pertsonak eta zentroetako erabiltzaileak), agindu honek mantendu egiten ditu aipatutako aginduetan orain arte ezarritako gutxieneko zerbitzuak.

Kontuan hartu behar da apirilaren 19ko 286/2022 Errege Dekretua, COVID-19k eragindako osasun-krisialdian maskarak erabiltzeko betebeharra aldatzen duena, indarrean sartzeak koronabirusaren pandemiak ezarritako murrizketak arintzea ekarri

zuela, eta hori kontuan hartu behar izan zela azken greba-deialdietan gutxieneko zerbitzuak betetzeko izendatutako langileen ehunekoak ezartzeko.

Agindu honek sektore osorako ezarritako gutxieneko zerbitzuak jasotzen ditu, nahiz eta deialdi desberdina izan, ikastetxeen aniztasuna eta lehen aipatutako 1288/2017 Jurisdikzioa Babesteko Errekurtsoan Salak emandako arrazoibidea oinarri hartuta.

Azkenik, eta gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko moduari dagokionez, agindu honek 2022ko maiatzaren 2ko Aginduan ezarritako kalkulu-metodoa errepikatzen du. Agindu hori EULEN SA enpresan Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzuan deitutako greba-deialdiaren ondorioz eman zen, eta agindu horretan argitu zen nola aplikatu behar diren ondorengo moduen eraginpean dauden langileen ehunekoak, gutxieneko zerbitzu horiek egitera deitutako langileen ehunekoak. Horrela, ehunekoaren kalkuluak zenbaki hamartarreko emaitza ematen duenean, hau da, zati oso batek eta beste zati hamartar batek osatzen duten zenbaki ez-oso bat, goragoko unitatera biribildu behar da (pertsonek zatiezinez ari gara, eta ez lanaldiko orduz, zatitu baitaiteke), hori bai, gutxieneko zerbitzu gisa ezarritako zereginak egiteko behar den denboran soilik.

Gobernu Agintaritzari gai honetan eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidearen erabilerak izan behar dituen mugak Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, oinarritzko beste eskubide batzuk betetzera bideratutako funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahala duenak bakarrik.

Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariari, nahiz Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun sailari, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharizanari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak hartuta, honako hau

## **EBAZTEN DU:**

**Lehena. - 1.** « Arabako egoitza eta etxebizitza komunitario Pribatuen » sektorean 2022eko maiatzaren 25an, deitutako greban langileek haien greba-eskubidea erabil dezakete, arreta zuzeneko zerbitzuak bermatzen diren heinean, zerbitzu horiek gutxieneko zerbitzutzat jo behar baitira, egoiliarren bizitza eta osasuna bermatzen dituztelako haien beharren arabera. Beraz, behar diren zerbitzuak emango dira egoiliarrek ohetik jaikiarazi eta oheratzeko (jarrera aldaketak eta abar barnean hartuta), osasun-asistentziarako (botikak, sendaketak...), baita oinarrizko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak banatzeko.

**2.** Ondoren aipatzen diren langileek jarraian zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduera horiek:

### **2.1. Oro har.**

**2.1.1.** Gutxieneko zerbitzuak egin behar dituzten pertsonen ehunekoaren kalkuluaren emaitzak zenbaki hamartarraren emaitza ematen badu, hau da, zati oso batek eta beste zati hamartar batek osatzen duten zenbaki ez-oso, goragoko unitatera biribildu behar da.

**2.1.2.** Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

**2.1.3.** Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

**2.1.4.** Medikuek bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu sinple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile

gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

**2.1.5.** Lehentasuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higiene pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek — betiere, medikuak aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, oinarrizko higiene pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da, beti, grebaldian, erantsitako agirian jasotako gomendioak betez.

**2.1.6.** Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan egingo dira garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere. Hala, zentro osoa sakon garbitzen dela bermatu beharko da, desinfekzioa barne, eta garbiketa-lana areagotu egingo da erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan, nahiz kontaktu handiko gainazaletan; besteak veste, barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makuluetan eta abar. Txanda bakoitzean gutxienez behin egin beharko da garbiketa.

**2.1.7.** Arropa-garbitegiaren zerbitzuan lan hauek egingo dira: egoiliarren azpiko arropa garbitu eta lehortzea, eta arropa zapala garbitu eta lehortzea (maindireak, burkoak eta eskuoihalak).

**2.2.** Ehunekoaren kalkuluak zenbaki hamartarraren emaitza dakarrenean, hau da, zati oso batek eta beste zati hamartar batek osatzen duten zenbaki ez-osoa, goragoko unitatera biribildu behar da (pertsona zatiezinez ari gara, eta ez lanaldiaren orduz, zatitu badaiteke), hori bai, Gutxieneko Zerbitzu gisa finkatutako zereginak egiteko behar den denboran.

### **2.3. Egoitzak:**

Egoitzetan, gerokultoreen edo horien pareko langileen %50ek lan egin behar du txanda guztietan, arreta zuzena ematen duten heinean. Bazkariaren ohiko ordutegian eta goizeko 08: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara izan ezik, horietan ehuneko hori % 10 handituko baita.

Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. edo III. graduko mendetasun aitortua duten egoitzetan, gerokultoreak edo antzekoak % 70 izango dira.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta «zuzeneko arretako» zereginak soilik egingo dira.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

#### **2.4. Eguneko zentroak:**

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 50ek lan egingo du. Gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, ehuneko hori % 10 handituko baita.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

#### **2.5. Etxebizitza komunitarioak:**

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen %50 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori %10 igoko baita. Gaueko txandan, gerokultoreen edo horien parekoen %100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

#### **2.6. Osasun-langileak:**

OLT/EUD langileen %50 egongo da.

#### **2.7. Sukaldeko langileak:**

Langileen %50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

#### **2.8. Garbitzaileak:**

Langileen %20ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira eta egiteko beharrezkoa den denboran baino ez dira egingo.

#### **2.9. Arropa-garbitzeko langileak:**

Normalean lan horretarako betetzen den lanaldiaren %40ean emango da zerbitzua, agindu honen 2.1.7. apartatuan azaldutako zereginak egiteko.

## **2.10. Mantentze-lanetako langileak:**

Jaiegunetan egoten den langile kopuru berdina egongo da, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

## **2.11. Ateko/harrerako langileak:**

Egoitzako sarrera nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunetarako baino ez du emango zerbitzu hori pertsona batek, txanda bakoitzean.

**Bigarrena.** - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

**Hirugarrena.** - 1. Agindu honen 2.1.3. zenbakian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

2. Langileen ordezkarietara entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira. 24 ordu lehenago jakinaraziko diote sindikatu-ordezkaritzari nork bete behar dituen eginkizun horiek.

**Laugarrena.** - Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzen joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**Bosgarrena.** - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

**Seigarrena.** - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

**Zazpigarrena.** - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera



Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA  
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**